ETXEBARRI 3D-N

ETXEBARRI 3D-k, Etxebarriko Udalarekin lankidetzan, 2015eko azaroaren 22an egingo den SAN ANTONIO (ETXEBARRI) X-TREME LASTERKETAren 4. edizioa antolatu du.
SAN ANTONIO (ETXEBARRI) X-TREME LASTERKETAk hiru proba izango ditu: 11 km-ko mendi martxa bat, 12,9 km-ko mendi lasterketa bat, lasterketa txiki bat eta 8 km-ko txakurkros bat.
Mendi martxa eta lasterketa txikiak lehiaketaz kanpokoak dira, oinez egingo dira eta adin guztietako publiko zabalari irekiak izango dira.

ORDUTEGIAK:

11:00. TXAKURKROSAREN IRTEERA
11:45. LASTERKETA TXIKIAREN IRTEERA
12:00. X-TREME LASTERKETAREN IRTEERA
12:05. MENDI MARTXAREN IRTEERA

2015EKO SAN ANTONIO (ETXEBARRI) X-TREME TXAKURKROS LASTERKETAREN ARAUDIA

0.- TXAKURREI BURUZ

GURE TXAKURRAK ETA TXERTOAK:
Txakurrek urtebeteko adina izango dute gutxienez, txipa jarrita eta behar den bezala txertatuta egon behar dute. (Ligako araudian zehaztuta)

MATERIALA:
Lotzeko uhala, korrikalariaren gerrikoa eta txakurraren arnesa (araudi ofizialaren arabera). Herri lasterketa bat denez ez da horren zorrotz jokatuko, baina beti begiratuko zaio txakurraren osasunari. Ez da oso zorrotz jokatuko korrikalariaren gerrikoari eta lotzeko uhalari dagokionez, baina bai, ordea, txakurraren arnesari dagokionez. Tira egiteko egokia izan behar du, eta ez da inongo kasutan onartuko txakurrak lepokoarekin tira egitea (Ligako araudian zehaztuta).

ARAUDI BEREZIARI DAGOKIONEZ:
Espainiako Neguko Kiroletako Federazioak (RFEDI) onartutako Espainiako Txakurkros Koparen 2013-2014ko araudiaren eta probaren beraren Araudi partikularraren arabera zuzenduko da proba hau.
Araudia: **www.rfedi.es**

Dena den, ligako araudia ere bete egin behar da.

1.- IZEN-EMATEA
Izen-emateak ondoko webgunearen bidez egingo dirawww.sailkapenak.com 2015eko urriaren 1etik azaroaren 21era arte. 100 korrikalariren gehienezko muga ezarriko da.
Izen emateko kuotaren prezioa: 15 €. Kanikroseko federatuentzat 12 € eta Etxebarrin erroldatutakoek 5 €.
Probaren egunean izen-ematea 20 €-koa izango da, Etxebarrin erroldatuta daudenentzat salbu, horiek 5 € ordaindu beharko baitute.

Izen-ematearen barruan ondokoa sartzen da:
- lasterketan parte hartzea
- Istripu-asegurua
- erantzukizun zibileko asegurua
- lasterketako oroimen oparia
- Hornidura

-osasun eta albaitari laguntza.
-dutxak, helmugaren lerroan dagoen Etxebarriko udal kiroldegian.

2.- DORTSALAK
Dortsalak Etxebarriko udal kiroldegian jasoko dira lasterketa hasi baino ordu erdi lehenago arte.
Txakurren albaitari kontrola 9:30etik 10:30era egingo da.
Informazioa emateko bilera bat egingo da irteerako lerroan hasiera baino 5 minutu lehenago.
Dortsala bularrean eraman behar da, ondo ikusi behar da eta antolakuntzak banatuko dituen kateorratzekin lotuko da, tolestu gabe eta publizitatea ezkutatu edo aldatu gabe.

3.- KATEGORIAK
Bi kategoria egongo dira:
• EMAKUMEZKOEN ABSOLUTUA
• GIZONEZKOEN ABSOLUTUA
Era berean, sailkapen honen barruan garaikurrak egongo dira Etxebarriko lehenengo 3 sailkatuentzat, bai gizonezkoentzat, bai emakumezkoentzat.

4.- IBILBIDEA
Antolakuntzak eskubidea izango du ibilbidea aldatzeko, beharrezkoa balitz. Batez ere, eguraldiak eraginda bada. Ligako araudian zehaztuta.
IBILBIDEA:



5.- SEGURTASUNA.
Proba herrikoia da, hau da, ez da beharrezkoa lizentzia edukitzea parte hartzeko. Txakurkros lasterketa hau herrikoia denez, antolakuntzak ez du inolako erantzukizunik izango proban parte hartzearen ondorioz korrikalariek eta haien txakurrek izan ditzaketen osasun arazoen gainean. Hori dela eta, korrikalariak arduratsuak izan daitezen eskatzen da, eta AURREZ OSASUN

AZTERKETA BAT EGITEA GOMENDATZEN DA.
Lasterketaren ibilbidearen punturik zailenetan antolakuntzak langile adituak jarriko ditu parte-hartzaileen eta haien txakurren segurtasuna zaintzearren. Behar bezala identifikatuta egongo diren pertsona horien jarraibideak nahitaez bete behar dira.
Ibilbidearen puntu estrategikoetan medikuak, albaitaria eta anbulantziak egongo dira, behar izanez gero esku hartzeko: Lasterketaren 5. km-an eta helmugaren eremuan.
Bai medikuak, bai albaitariak, bai probako arduradunek korrikalariren bat edo bere txakurra lasterketatik atera dezakete haren gaitasun fisiko edo teknikoak mugatuta daudela uste badute, nekea dela-eta edo bere baldintzak lasterketa jarraitzeko egokiak ez direlako.

6.- IRTEERA ETA ORDUTEGIAK
Irteera 11:00etan izango da, Etxebarriko udal kiroldegitik.
Antolakuntzak eskubidea du ibilbidea eta ordutegiak aldatzeko, beharrezkoa balitz.

7.- HORNIDURA
5. kilometroan, gutxi gorabehera, hornidura postu bat egongo da. Ur botilatxoak egongo dira korrikalarientzat eta ur baldeak txakurrentzat.
Botilatxoak leku berean utzi beharko dira, bidean botata uztea saihestuz. Ez bota hondakinik horretarako propio prestatutako lekuetatik kanpo. Arau hori ez betetzeak eskubidea emango die antolatzaileei betetzen ez duena lasterketatik baztertzeko.

8.- SAILKAPENAK
Probaren sailkapenak webgunean egongo dira ikusgai (www.sailkapenak.com) hurrengo egunean.

9.- SARIAK
Sariak ondoko hauek izango dira, eta eskuratu ahal izateko nahitaez egon behar da bertan:
- Gizonezkoen 1. sailkatua: garaikurra
- Gizonezkoen 2. sailkatua: garaikurra
- Gizonezkoen 3. sailkatua: garaikurra
- Emakumezkoen 1. sailkatua: garaikurra
- Emakumezkoen 2. sailkatua: garaikurra
- Emakumezkoen 3. sailkatua: garaikurra

Garaikurrak egongo dira bertako lehenengo gizonezko eta emakumezko sailkatuentzat.

10.- ARROPATEGIA
ANIMATU GARRAIO PUBLIKOA ERABILTZERA.Etxebarrik hiriko autobus bat dauka, urdina, herria zeharkatzen duena metroko ahotik udal kiroldegiko inguruetaraino, irteera eta helmuga dauden lekuraino, hain zuzen. GOGORATU LASTERKETA ETXEBARRIKO SAN ANTONIO AUZOAN IZANGO DELA, N-634 ERREPIDEAK ETXEBARRITIK BEREIZTEN DUEN AUZOAN.
Antolakuntzak arropategi zerbitzua jarri du parte-hartzaile guztientzat erabilgarri. Antolakuntza ez da arduratuko arropategian uzten den materialaren galeraz.

GPS KOORDENATUAK:

Latitudea: 43.24990435493523

Longitudea: -2.8828850353606867

11.- PARTE HARTZAILEEN ERANTZUKIZUNAK
Antolatzaileek ez dute inolako erantzukizunik izango parte-hartzaileek edo beren txakurrek eta galdutako, hondatutako edo lapurtutako materialek jasandako kalteen ondorioz aurkeztutako erreklamazio edo auzietan. Proban izena eman duten parte hartzaileek bere borondatez eta euren erantzukizunpean parte hartuko dute lasterketan. Hori dela eta, antolatzaileek, laguntzaileek, babesleek eta beste parte-hartzaile batzuek ez dute inolako erantzukizun zibilik izango lasterkariekin eta euren oinordekoekin, eta, horrez gain, azken horiek ez dituzte inolaz ere salatuko.

12.- DATUEN TRATAMENDUAREN ERANTZUKIZUNA ETA XEDEA
Izaera pertsonaleko datuen babeserakoa abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak ezarritakoa betetzeko xedez, informatzen zaituztegu izen emateko inprimakiaren bidez ematen dizkiguzuen datu pertsonalak E3D-ren (hemendik aurrera “antolakuntza”) ardurapean dagoen fitxategi batean sartuko direla. Fitxategi hori ondoko xedeetarako erabiliko da: kirol proba antolatzeko, parte hartzaileen izen ematerako, dortsalak banatzeko, korrikalarien aseguruak egiteko, hedabideetan lortutako markak argitaratzeko, hedabideetan parte hartzaileen argazkiak eta irudiak argitaratzeko, fakturaziorako eta, oro har, kirol ekintza baten kudeaketa eta antolakuntzarekin zerikusia duten helburuetarako.Zure datuak denbora mugagabean gordeko dira eta probaren sustatzaileei laga ahal zaizkie kirol ekintzekin loturiko informazioa bidali ahal izateko, antolatzaile berberek edo hirugarren batzuek antolatuak, baita kirol probaren antolatzaile eta laguntzaileen produktu eta zerbitzuen berri emateko ere.

Bidalketa horiek ohiko bideak edo bitarteko elektronikoak erabiliz egin daitezke, datu pertsonalak ezabatzeko duzun eskubidearen kalterik gabe, egokitzat jotzen duzun aldioro.

13.- INGURUMENAREKIKO ERANTZUKIZUNA
Parte-hartzaileei ingurumenarekin arduratsu jokatzea eskatzen zaie, batez ere, hornidura-postuaren inguruan eta hondakinak, edalontziak, botilatxoak eta abar botatzeari dagokionez. Izan ere, lasterketa natur ingurune batean izango da.

14.- ALDAKETAK
Antolatzaileek araudi hau edozein unetan alda, zuzendu edo hobetu dezakete.
Parte-hartzaile guztiek, parte hartzeagatik soilik eta izen emateko kuota ordaindu izanagatik araudi hau betetzeko konpromisoa hartzen dute.
ANTOLATZAILEEKIN ZERIKUSIRIK EZ DUTEN ARRAZOIENGATIK PROBA BERTAN BEHERA GERATUKO BALITZ (Eguraldiagatik edo Agintari eskudunek horrela agintzen dutelako, eta abar) ez da izen-ematean ordaindu den kuota itzuliko.

15.- Araudiak direla-eta edozein zalantzaren aurrean lasterketaren araudia gailenduko da Txakurkroseko euskal ligaren araudiaren aurretik.